

1. eranskina

EGOKITASUN ETIKOAREN TXOSTENA ESKATZEKO INPRIMAKIA

Mondragon Unibertsitateko Ikerketako Etika Batzordearen Araudiko 5. puntuan, «Ikerketako Etika Batzordeak egokitasun etikoaren txostenak egiteko prozedurari» buruzkoan, ezarritakoari jarraikiz, Batzorde honen ebaluazioa eskatzen duen proiektuaren arduradunak posta elektronikoz bidali beharko dizkio Mondragon Unibertsitateko IEBko idazkariari —ipenacoba@mondragon.edu— bai eskaera-inprimaki hau (behar bezala beteta) eta bai jarraian azalduko dugun dokumentazioa, IEBk dagokion egokitasun etikoaren txostena eman dezan.

Proiektua beste erakunde batzuekin batera —unibertsitateak, ikerketa-zentroak, elkarteak, ospitaleak eta abar— egitekoa bada, erakundeon etika-batzordeek proiektua baimentzeko, proiektuan parte hartzeko edo erakunde horietako datuak edo pertsonak erabiltzeko emandako ebaluazio etikoaren ziurtagiria erantsi beharko da.

Proiektuaren izena:

Proiektuaren ardura duen ikertzailearen datuak:

Izen-abizenak:	Ikerketa-taldea:	
Fakultatea / Zentroa:	Harremanetarako telefonoa:	Helbide elektronikoa:

I. Adierazi ea proposamenak kontuan hartzen dituen alderdi hauek:

- | | | |
|--|------------------------------|-----------------------------|
| A.- Gizakiekin egindako ikerketa esperimetal klinikoa..... | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| B.- Informazio genetikoari buruzko datuen babesa..... | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| C.- Animalia-esperimentazioa..... | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| D.- Osasunerako arriskutsuak diren agente biologikoen erabilera..... | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| E.- Izaera pertsonaleko / bereziki babestutako datuen babesa..... | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| F.- Inplikazio etikoa duten esku-hartze sozialak..... | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| G.- Portaeretan eta behaketan oinarritutako azterketak, landa-lanak
eta azterketa arkeologikoak, elkarrizketak, bizitza-historiak,
galde-sortak eta antzekoak..... | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |

II. Erantsi den dokumentazioa (x bat ipini)

- eskaera (1. eranskina)
- proiektuaren memoria, Ikerketako Etika Batzordeak eskatzen duen informazioarekin
- proiektuan parte hartuko dutenak informatzeko eta haien baimena jasotzeko dokumentua
- izaera pertsonaleko datuak babestearen alorreko inpaktuaren ebaluazioa, batez ere osasun publikoko ikerketarako eta, zehazki, ikerketa biomedikorako erabiltzen direnean
- proiektuaren arduradunak (edo, dagokionean, tesiaren zuzendariak) sinatutako konpromisoa, datu pertsonalen konfidentziasunari eta horiei bai proiektuan zehar eta bai amaitutakoan emango zaien tratamenduari —akademikoa edo hedapen zientifikorakoa— buruz
- proiektuan parte hartuko duten beste erakunde batzuen Ikerketako Etika Batzordearen txostenak

III. IKERTZAILEAREN KONPROMISOA

Eskaera honen lehen orrialdean izendatu den ikertzaile arduradunak adierazi du egiazkoa dela inprimaki honetan emandako informazio guztia, eta hitzeman du ikerketa zuzentasunez gauzatzeko duela etikari dagokionez.

Eguna:

Ikertzaile arduradunaren sinadura